

SHREC

SHifting towards Renewable Energy for
Transition to Low Carbon Energy

Arrasateko Udalaren Ekintza Plana:

Leintz Bailarako Ekiolaren gizarteratze
prozesua

2022 Maiatza



Interreg
Europe



Co-funded by
the European Union

SHREC
Interreg Europe

Edukia

Informazio orokorra	1
Politika testuingurua	1
Aurrekariak.....	2
Sarrera	4
Ekintza Plana	5
Kronograma	10
Kostuak eta finantzazio iturriak.....	11



Informazio orokorra

Proiektua: **SHREC**

Erakundea: **Arrasateko Udala**


Herrialdea: **Espainia**

NUTS2 eskualdea: **Euskal Autonomi Erkidegoa**

Harremanetarako pertsonak: **MARIA UBARRETXENA** eta
CARMEN MARTINEZ DE LEJARZA

Helbide elektronikoa: alkatea@arrasate.eus eta
cmartinezdelejarza@arraste.eus

Telefono zenbakia: +34 943 25 20 00



Politika testuingurua

Ekintza planak helburu du eragitea:

bestelako eskualde politikan.

Eragingo dion politikaren izena:

"MondragON Action Plan".

Aurrekariak


Arrasateko Udalak, sektore publikoa izanik, ziurtatu behar du; bere elektrizitate kontsumoa %100 iturri berriztagarrikoa dela, eta, 2030 urterako bere guztizko energia kontsumoaren %32 autokontsumitu beharko duela, hortaz, Arrasateko Udalak energia-kontsumoaren jarraipen zehatza egitea du helburu, energia berriztagarriekin mix energetikoa hobetzeko eta kontsumoak biztanleriarengan duen eragina murrizteko.

Era berean, beharrezkoa da CO₂a isurtzen duten jarduerak murriztea eta energia-iturri garbi eta berriztagarrietara aldatzea. Udalak, beraz, tokiko politika hobetu behar du, ez norberarentzat bakarrik, baizik eta enpresek energia berriztagarrietan eta teknologia berri berritzaileetan egin beharreko inbertsioak sustatuz; energia alternatibo iraunkorragoak eta karbono gutxikoak lortzeko.

Energia berriztagarriek mix energetikoan duten parte-hartzea handitzea, nahitaezkoa izango da trantsizio energetikoaren ekintza bezala. Udal ekintzetatik haratago, udal autokontsumotik alegia, norbanakoen etxebizitzetan instalazioak gauzatzea ez da bideragarri guztientzat eta erronka honi erantzuna emateko sortu zen, besteak beste, EKIOLA.

Baina zer da Ekiola? EKIOLA lankidetzak publiko-pribatuari esker eratu da, EEE Energiaren Euskal Erakundearen eta Corporación MONDRAGON taldearen parte den KREAN ingeniariak sustatzailearen arteko lankidetzaren emaitza da. Herritarrak eguzki-parke txikien bidez hornituko dira energiaren eta kooperatiban parte hartuko dute energia sortzeko eta kudeatzeko. Auto-hornikuntza bultzatu nahi du EKIOLAK, kanpoko iturriekiko mendekotasuna murriztu eta energia berriztagarri iraunkorrak sustatu. Erakundeek eta herritarrek klimaren alde egingo duten apustu handia da. Izan ere, kooperatibako bazkide bakoitzak bere energia-kontsumoarekin bere azterna murriztuko baitu.

Leintz Bailarako Ekiolaren helburua da energia kontsumoko kooperatiba bat sortzea Leintz Haraneko familientzat (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga). Energia kontsumoko kooperatiba honek energia berriztagarria erosiko du LKS Krean enpresak, Arrasaten eraikiko duen eguzki-parketik sortutako energia alegia. Modu horretan tokiko familiek, haraneko beste familia batzuekin batera, bertan ekoiztutako energia ahalko dute kontsumitu. Hortaz, energia-kooperatiba bat sortuko dute plantak sortutako energia kontsumitzeko.



2

Proiektuak, halabaina, bi ardatz nagusi ditu: lehen, instalazioari berari dagokiona; eraikuntza, potentzia, azalera, kostuak, eta abar, eta, bigarrena, gizarteratze eta bazkidetzari lotutakoak; herritarrak informatzea, instalazioaren ezaugarriak azaltzea, bazkide potentzialak erakartzea, besteak beste. Leintz Bailarako Ekiola proiektua martxan jartzeko beraz, beharrezkoa izango da komunikazio plan bat diseinatzea. Beti ere, ahal den neurrian, Krea eta Energiaren Euskal Erakundeak orain arteko lanaren garapenean ipinitako irizpideak aintzat hartuta.

Hori guztia kontuan hartuta Leintz Bailarako Ekiolak 2021ean hasi zuen bere ibilbidea Arrasateko Udalean, baina ez da izan 2022arte benetan errealitate bilakatu dela. Lehenik, aurre azterketa bat abiarazi zen eta ondorioztatu zen, Ekiola ereduak Arrasate eta bailarako beste hiru udalerriren energia estrategiekkin lerrotatuta zegoela. Proiektu jasangarria, tokikoa eta adostua. Jarraian, Ekiola Energia Sustapenak asmo-akordio bat sinatu zuen Leintz Bailaran eguzki energia sortuko duen EKIOLA kooperatiba sortzeko asmoarekin. Hirugarren pauso bezala aurretiko kooperatiba eratu zen, irabazi asmorik gabeko zerbitzu profesionalen kooperatiba alegia, eta bere helburua izango da instalazio fotovoltaiakoaren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa, legezkoa, ingurumenekoa eta soziala gauzatzea. Bideragarritasun honen azterketak eguzki parkearen kokapena definitu zuen. 2022ko martxoan kooperatibak proiektuaren instalazioa eta hasierako ezarpena kokatuko den lur-zatia identifikatu eta lotu zuen.

Pauso hauek guztiak, ardatz teknikoari lotutakoak izan dira batez ere, eta orain, gizarteratze pausoak burutu behar dira.

Pauso hauek izango dira, SHREC proiektuaren ekintza planean txertatuko direnak, hortaz, ekintza plana izango da kooperatibara bazkide potentzialak erakartzeko sozializazio prozesua garatzea eta, Arrasateko, eta haraneko, herritarrak inplikatzeko.



3

Sarrera

Arrasateko Udalak MondragON Action plana hartu zuen oinarritzat SHREC proiektuaren baitan aurreikusen zen politiketan eragina gauzatzeko, izan ere, SHREC proiektuak du helburu, ikasketa esperientzien bitartez herrialdeetako politiketan eragitea. Ekintza planak bere gain hartzen zituen hainbat egitasmo eta lan lerro, energia berriztagarrien sustapena besteak beste. Honekin zuzenean lotura izan du SHREC proiektuak azken ia hiru urtetan eta proiektu kideengandik ikasitakoa barneratu eta Arrasateko Udalaren plangintzan txertatzea du xede jarraian aurkezten den ekintza planak.

Izandako esperientzia elkartrukaketan, Lituaniako bazkideak, IGNITIS egitasmoa aurkeztu zuen. Egitasmo honek proposatzen du eguzki parke plataforma baten sorrera. Abiarazitako eguzki-parkeen plataformak aukera ematen die herrialdeko biztanle guztiei, baita etxebizitza blokeetan bizi direnei ere, eguzki-parkeetako eguzki-energiaren instalazioaren zati bat erosteko edo alokatzeko eta, aldi berean, bihurtzeko urruneko kontsumitzaile sortzaile. Gaur egun, Lituaniako eguzki-parkeen plataformak 3.000 erabiltzaile baino gehiago ditu, eta guztira 14 MW-eko edukiera duten 27 proiektu baino gehiago burutu dira.

Arrasateko Udalak adibide hau aintzat hartuta eta, Leintz Bailarako Ekiolarekin dituen antzekotasunak identifikatuta Arrasateko Ekintza plana praktika on horretan oinarritzea erabaki du.

Udalak berak ezingo luke bere gain hartu horrelako instalazio bat burutzea eta herritarrei eskaintzea, halabaina, gizarteratze eta sozializazioan laguntzeaz gain, lurrak esleitzeko aukera ere izan du. Horrela, Udalarenak ziren eta ekipamenduetara bideratuta zeuden lursail maldatsu eta erabilera zehatzik gabekoa emakidan luzatu zaizkio proiekturi eguzki parkea eraikitzeko aukera egon dadin.



Ekintza Plana

Aurretik aipatu den moduan, Leintz Bailarako Ekiolaren kasuan, Udalak ez, baina herritarrak izango dira eguzki parkea eraikitzeke ekarpen ekonomikoa egin beharko dutenak, eta horretarako kooperatiba bat eratu beharko dute.

Jakina da horrelako prozesuek batzuetan mesfidantza eta zalantzak sorten dituztela eta erakunde publikoen babes nahitaezkoa izaten dela. Hemen jokatzen du Arrasateko Udalak rol garrantzitsua, izan ere, ekarpen ekonomikorik ez, baina bermea ematen dio proiektuari. Hori erabiliaz, sozializazio lanak erraztea espero da eta horregatik Arrasateko Udalak Kooperatiba osatzeko adina bazkide lortzeko prozesuan eragile aktibo rola hartuko du beste hainbat eragilerekin batera. Prozesu honetan bidelagun izango dira ondorengo eragileak eta beraien rol nagusia izango da:

ERAGILEA	ROLA
Arrasateko Udala	Proiektua liderra eta zeregin nagusia kanpaina diseinatzea izango da, eta sartzeko baldintzei buruzko erabakiak hartuko ditu
LKS KREAN	Proiektua liderra. Know-how tekniko osoa eta aholkularitza juridikoa ematea
Energiaren Euskal Erakundea	Proiektua liderra. Know-how tekniko osoa eta aholkularitza juridikoa ematea
Fagor Taldea	Energia-kooperatibari ekarpen ekonomikoa egiten dio. Eskualdeko kooperatiba talde nagusia da eta bazkide laguntzailea izango da.
D2030	Eskualdea ordezkatzeko duen lankidetzaren sarea. Kooperatibaren bazkide laguntzailea izango da.
Goiena Komunikazio Taldea	Sozializazioaren ikuspuntua ematen duen tokiko komunikazio-taldea da eta kooperatibaren bazkide laguntzailea izango da.
Herritarrak	Kooperatibako bazkideak



Eragile guzti hauekin landuko da, beraz, sozializazio eta gizarteratze lanketa, eta, oso garrantzitsua izango da herrian detektatu diren ahulezia edo kritika posibleei aurre egiteko azalpen eta irizpide argiak garatzea.

Hori horrela izan dadin, Arrasateko Udalak Ekintza Plan honetan jokatu duen rola izango da laguntzea erakartze-eta gizarteratze-prozesuan, eta horretarako, ondorengo azpi-ekintza nagusiak identifikatu dira:

- Lan talde dinamiko bat sortzea: Arrasateko udalak, gainerako eragile eta interesa izan dezaketen erakundeekin lan talde bat osatuko du; Udala, komunikazio eragileak, eskualde garapenerako erakundeak, enpresa eta kooperatibak, besteak beste,
- Talde horrekin batera, udalak, herritarrek bazkide kooperatibo bihurtzeko aplikatuko diren arauak aztertuko ditu.
- Herritar bazkideek ezagutu beharko dituzten eskubideak eta betebeharrak aztertuko ditu lan taldeak.
- Aurretiko sentsibilizazio-kanpaina bat diseinatuko du Udalak, Ekiola egitasmoaren inguruko alde aurreko informazio guztia herritarrei helarazteko.
- Lan taldeak, aurretiko izen ematearen eta benetako izen ematearen artean, bazkide izateko herritarrek bete beharko dituzten arauak zehaztuko ditu.
- Herritar talde fokal bat sortuko du Udalak eragileekin batera, proiektuaren inguruko jakinmina mantentzeko.
- Talde fokal horrekin lan egingo du Udalak, proiektua sustatzen hasteko.
- Lehendabiziko zabalkundea egindakoan, aurrehautaketa prozesua hasiko da, izena eman duten parte hartzaileen artean.
- Aurrehautaketa prozesuaren emaitzak aztertuko ditu udal, bazkide potentzialen profil soziologikoa ezagutzeko.
- Parte hartzeko kanpaina ofiziala abiaraziko du Udalak lan taldearekin batera.



Goian aipatutako ekintzak, bi multzo nagusitan banatzen dira: aurre-sozializazio fasea, proiektuaren ekonomia ezagutu aurretik burutuko dena, eta, bazkidetza fasea, proiektuaren datu ekonomikoak ezagutzen direnean hasiko dena. Hortaz, herritarrekin lanketa ardatz izango da momentu oro; sozializazio fasean, izen emate epea itxitakoan, eta baita, proiektua martxan jarritakoan ere.

Jarraian fase bakoitzari dagozkion mugarri nagusiak laburtzen dira:

1. Presozializazio fasea: proiektuaren ekonomia ezagutu aurretik burutuko dena. 2022ko apiriletik – 2022 iraila.
 - a. Fase honetan oraindik ez dago proiektuaren ekonomia definitua izan ere Ekiolak muga batzuk ditu ezarriak Bazkidetza fasea zabaldu ahal izateko: ekoizpen prezioa eta inbertsioaren inguruko limiteak, alegia. Ez bada lortzen dirulaguntzarik, muga hauek gainditzen dira eta proiektua ez da ekonomikoki erakargarria.
 - b. Fase honi tokian tokiko biztanleei zuzendutako bilera informatibo zabalekin ematen zaio hasiera.
 - c. Fase honetan hartu beharreko erabaki garrantzitsuenetako bat da bazkideen inskripzio prozesua erregulatuko duen prozesu edo arauak erabakitzea: izena ematen duten ordenaren arabera, zozketa, errenta baxuenetakoak lehenetsi, eta abar bezalako erabakiak.
 - d. Presozializazio fasea apirilean jarriko da abian eta maiatza, ekaina eta uztailean zehar luzatuko da. Esan bezala sesio informatiboekin emango zaie hasiera eta Maiatzetik uztaileko epe horretan Ekiola proiektua medioetan eta kalean bizirik mantentzeko hainbat izango dira erabiliko diren proiektuaren inguruko berriak:
 - i. Bazkide laguntzaileen inkorporazioan inguruko ekitaldia.
 - ii. Lurzoruan bertan Ekiolako teknikoek egindako proiektuaren inguruko aurkezpenaren bideoa.
 - iii. Interesatuei inskripzio prozesuan laguntzeko diseinatzeko gabiltzan bideo animatuaren banaketa.
 - iv. BAZen herritarrentzako informazio gune bat zabaltzea.

Bestalde, ekintza publizitarioen diseinua ere aurreikusita dago (publizitate tradizionala, buzoneo edo antzekoak, sare sozial propioaren kudeaketa,...)



2. Bazkidetza fasea: proiektuaren ekonomia ezagututakoan burutuko dena. 2022ko irailetik – 2022 azaroa (edo kupoa osatu arte).

a. Fase honi hasiera emango zaio behin IDAEko laguntzen inguruko emaitza jaso eta proiektuaren ekonomia itxita dagoenean.

b. Fase honi ere bilera informatibo ireki batekin emango zaio hasiera. Bilera horretan proiektuaren datu konkretuak komunikatzeaz gain, inskripzio fasea bera noiz hasi eta nola kudeatuko den komunikatuko da.

c. EKiola energia sustapenak inskripzio prozesua informatizaturik dauka eta web orritik egin daiteke soilik, bertan dagoen formulario baten interesatuak bere datuak jaso beharko ditu bere txosten pertsonalizatua jaso ahal izateko. Txosten horretan pertsona konkretu horri esleituko zaion potentzia eta horri dagokion inbertsioa zenbatekoa den jasoko da. Behin txosten hori jasota interesatuak dagokion aportazioaren ordainketa egin beharko du bere bazkidetza formalizatzeko eta ondoren kontratuak sinatuko dira bazkidetza horren legalizatorako. Horretarako aurreikusten da Udalak, BAZen aurrez-aurreko bulegoa zabaltzea.

d. Bazkidetza fasea Irailean hasiko da eta era ordenatuan eramango da proiektua aurrera ateratzeko behar diren bazkide guztiak apuntatu arte, abendua aurreikusten da. Hor tartean, herritarrak erakartzeko eta informatzeko hainbat hitzaldi antolatuko dira.

Proiektuaren ekonomia itxita eta baimen guztiak izandakoan, eguzki parkea eraikitzen hasiko litzateke. Hori, 2023ko martxoan gertatuko litzateke eta eraikitzen ari den bitartean, bazkide izango diren herritarrekin, jabetze eta ahalduntze formazioak gauzatuko dira.

Instalazioa martxan jartzea ekainerako aurreikusten da eta orduan, herritarrak euren den energia berriztagarria kontsumitzen hasiko lirateke. Hurrengo hilabeteetan jarraipena egingo zaie eta asebetetze inkesta baten bitartez beraien pertzepzioa ezagutuko da.

Era berean, "Leintz Baiarako Ekiolaren" arrakasta aztertu beharko da. Aurreikusten da egongo direla proiektutik kanpo geratu daitezkeen herritarrak, eta, hori dela eta arreta berezia eskaini nahi zaie, kanpo gera litezkeen herritar horiei. Horregatik, nahiz eta eguzki parkea eraikitzen hasi eta Kontsumo kooperatiba eratu, bistan izan behar da bigarren instalazio posible baten eraikuntza.

A handwritten signature in black ink, consisting of several loops and a long tail stroke.

Kronograma

- 2022ko Apirila: Komunitate energetikoen inguruko hitzaldia.
- 2022ko Maiatza: **Presozializazio fasea**. Lehen sozializazio ekintza. Gizarteratzea.
- 2022 Uda: Sarrera baldintzak erabakitzea
- 2022 Uda: BAZen bulegoa zabaltzea
- 2022ko Iraila: IDAEko dirulaguntzaren ebazpena jasotzea
- 2022ko Iraila: Proiektuaren kostuen birkalkulua
- 2022ko Iraila: **Bazkidetza Fasea**. Bigarren sozializazio ekintza.
 - Informazio bulegoaren irekiera
 - Izen ematea bazkide izateko.
 - Bazkideen hautaketa prozesua.
- 2022ko Azaroa: Komunitate energetikoen inguruko hitzaldia.
- 2022ko Abendua: bazkideen sinadura prozesua

2023ko martxoan aurreikusten da eraikiko dela eguzki parkea.

Honen ondoren emango diren sozializazio ekintzak:

- 2023ko apirila: bazkideentzako jabetze formakuntza.
- 2023ko Ekaina: eguzki parkearen inaugurazioa.
- 2023ko uda: sozializazio prozesuaren monitorizazioa.



Kostuak eta finantzazio iturriak

Proiektuaren kostua izango da sozializazio lanek eskatzen dutena eta hauek bi fasetan banatu dira; aurre-sozializazioa 13.000€ eta bazkidetza, 20.000€: 33.000€ guztira.

Lehen komunikazio faserako, aurre-lanketa prozesuak 13.000€ko aurrekontua izan du eta Arrasateko Udalari dagokio.

Aurrerantzean egingo diren lanen kostuak, Arrasateko Udalak, LKS Kreanek eta Energiaren Euskal Erakundeak partekatuko dituzte.

Finantzazio Iturriei dagokionez, Arrasateko Udala, LKS Krea eta EEE izango dira finantzatzaileak eta iturri propioak erabiltzea aurreikusten da.

Hasierako aurreikuspenaren arabera 20.000€ko aurrekontua aurreikusten da.



Arrasaten, 2022ko Ekainaren 28an

Maria Ubarretxena Cid

Arrasateko Alkatea